

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## 4001

*IRAGARKIA, 2025eko irailaren 2koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendariarena, laguntzak itzultzeko prozedura hasten duten erabakiak jakinarazten dituen (enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko 2024ko ekitaldirako laguntzen deialdia).*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendariak laguntzak itzultzeko prozedura hasten duten erabakiak hartu ditu, urriaren 17ko 152/2023 Dekretuaren 78. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (52/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa).

Ezinezkoa izan da itzultzen hasteko erabaki horiek jakinaraztea, eta, horrenbestez, iragarki hau argitaratzen da, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan.

Interesdunek 15 egun baliouduneko epea izango dute, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zuzenbidearen arabera egoki dena aurkeztu eta alegatzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz), zuzenean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan aurreikusitako edozein bitarteko erabilita. Era berean, ohartarazten da, horrela egin ezean prozedurari amaiera emango zaiola; horretarako ebazpena emango da, eta bertan, ez-betetzea egin dela erabakitzen bada, orain arte jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra ezarri ahal izango da.

Horretarako, jakinarazten da itzultzeko prozedura hasteko erabakien testu osoa eskuragarri dagoela Lanbideren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Eranskinean aipatutako interesdunak jakinaren gainean egon daitezzen argitaratzen da hau, eta haien jakinarazpena balitz bezala balioko du.

Jakinazpen honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 2a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Enplegu eta Prestakuntzaren zuzendaria,  
MARÍA ARÁNZAZU NIÑO NÚÑEZ.

## ERANSKINA

NAN/IFZ/AIZ/Pasaportea	Erreferentzia
B95508750	2025/REINT/000060
B01272715	2025/REINT/000081
G75109785	2025/REINT/000092
B95504619	2025/REINT/000093